



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/07/26

Aldundiak Habidite kasuaren azkenengo epaia onartuko dau eta "entzunaldia" eskiniko deutso Jabyer Fernándezi

Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak, Habiditegaz egoan kontratua baliobakotzeko 2009an Aldundiak hartu eban erabagiaren kontra Epaitegi Gorenak orain denpora gitxi emon dauen epaia onartzea erabagi dau. Ibone Bengoetxea Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu andreak Bizkaiko Batzar Nagusien aurrean autortu dauenez, garai haretan “ez-egitea gertatu zan betebeharren tramitean”, eta horrek “babes falta” eragin eban Jabyer Fernándezengan. Hori dala eta, epaitegiak emondako epaia bete egingo da. “Entzunaldia emongo deusagu interesauari”, “pertsona fisikoa edo juridikoa” bada be, Aldundiaren eta Habiditeren artean sinatutako hitzarmenak beteteari jagokonez dauen jarrerea defendidu daian.

Bengoetxeak azpimarratu dauenez, Epaitegi Gorenaren epaia “ez da gaiaren funtsean sartzen, formetan geratzen da”. Eta segurtatu dauenez, momentuz behintzat, egungo gobernu taldeak ez dau pausu gehiagorik emongo, Zurrako kartzelan (Zaragoza) preso dagon negozio gizonak esan beharrekoa entzun arte. “Ez dot gertatu daitekenaren inguruko ezer aurreratuko”, baina “gaur egun argi eta garbi dagon gauza bakarra, Aldundiak ez dauela ezelango kalte ekonomikorik jasan da”. Diputatu andreak azpimarratu dauenez, Epaitegi Gorenaren epaiak “hobetu” egiten dau Aldundiaren helegitea jaso eban Euskadiko Justizia Epaitegi Gorenaren epaiak esaten ebana, Aldundiak ez ditualako epaiketa prozesuko “kostuak ordaindu behar”.

Unai Rementeria Ahaldun Nagusiaren agerraldia eskatu eban oposizinoak kritikau egin dau Aldundiak Habidite kasuan izan dauen jarrerea. EH Bildu, Podemos eta PP taldeek euren bildurra erakutsi dabe, epaiak kutxa publikoetan ondorioak izan ete daitekezan. Fernándezek “8 milioi euro arteko” kalte-ordaina eskatzeko aukerea izan daikela aitatu dabe. Kopuru horri, Montealegreko lurak erosteko gastau ziran “5,4 milioi euroak” eta Foru Aldundiak izan dituan gastu juridikoak gehitu behar jakez, PPK esan dauenez.

Iraskunde, Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Batzordean Podemos Bizkaia taldeak iragarri dauenez, Jabyer Fernández Bizkaiko Batzar Nagusietara etortea eskatuko dau. Aldundiaren bertsinoa ezagutu ostean, enpresarioak esan behar dauena be jakin gura dabe. Talde moreak, Epaitegi Gorenaren epaia ezagutu ostean “eskatuko diran erantzukizun politikoengaitik” galdetu dau.

ONARTU EZ DAN PROPOSAMENA

Imanol Pradales Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapen diputatuaren laguntza izan dauen Bengoetxearen agerraldiaren aurretik, batzordeak ez dau onartu Podemos Bizkaia taldearen arauz besteko proposamen bat, beste gauza batzuen artean, “herritarren ordezkarietara erantzukizun politikoak eskatzeko mekanismoak bultzatu daizan” eskatu deioen Batzar Nagusiek Gobernu zentralari. Testuan, “herritarren burujabetzea aldarrikatzen zan, erantzukizun politikoko baliabidearen bitartez”, Mariano Rajoyren eta bere Gobernuaren dimisinoa bultzatzeko, alderdi horrek daukazan ustelkeria kasu “zenbatu-ezinengaitik”. Talde Moreak onartu egin dau EH Bilduk aurkeztu dauen zuzenketa-eskea, kontrolerako mekanismo horreen inguruko eskaria Euskadiko erakundeetara mugatzeko.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Podemos eta EH Bildu taldeen artean adostutako ekimena ez da onetsi, EAJ-PNV, PP eta PSE-EE taldeak kontra agertu diralako. Ezezkoa emon daben taldeen eretziz, beste Udal eta batzar batzuetan be eztabaidau dan ekimenaren helburua, joan dan bagilean Diputatuen Kongresuan eztabaidau zan Podemosen zentsura mozinoa “ikusarazotea” eta “berotzea” zan. Hiru talde horreen eretziz, demokraziaren kalidadearen eta ustelkeriaren inguruko eztabaidea beste foro batzuetara eroan behar da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
26/07/2017

La Diputación acatará la última sentencia del caso Habidite y ofrecerá "audiencia" a Jabyer Fernández

El Consejo de Gobierno de la Diputación foral de Bizkaia ha decidido hoy acatar la reciente sentencia del Tribunal Supremo contra la decisión foral de 2009 de anular el contrato con Habidite. La diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea, ha señalado en las Juntas Generales de Bizkaia que, en aquel momento, tal y como se desprende de la sentencia, se produjo “una omisión en el trámite de obligaciones” que causó “indefensión” en Jabyer Fernández. En cumplimiento del fallo, “daremos audiencia al interesado”, ya sea “persona física o jurídica”, para que defienda su postura en relación al cumplimiento de los convenios firmados entre la Diputación y Habidite.

Bengoetxea ha destacado que el fallo del Tribunal Supremo “no entra al fondo del asunto sino que se queda en las formas”. Y ha asegurado que, por el momento, el actual equipo de gobierno no dará más pasos, a la espera de escuchar al hombre de negocios que se encuentra encarcelado en la prisión de Zurra (Zaragoza). “No voy a especular con lo que pueda suceder”, pero la “única certeza es que, a día de hoy, no ha habido ningún quebranto económico” para la Diputación. La diputada ha destacado que la sentencia del Supremo “mejora” la sentencia recurrida del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, ya que la Diputación “no deberá abonar las costas” del proceso judicial.

La oposición, que había pedido la comparecencia del Diputado general, Unai Rementeria, ha criticado la postura de la Diputación en el caso Habidite. EH Bildu, Podemos y PP han expresado su temor a que pueda tener consecuencias para las arcas públicas. Han mencionado la posibilidad de que Fernández pudiera reclamar una indemnización de “hasta 8 millones de euros”. A esta cantidad habría que sumar los “5,4 millones de euros” que costaron los terrenos de Montealegre y los gastos jurídicos en los que ha incurrido la Institución foral, según el PP.

Podemos Bizkaia ha anunciado en la comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia, que va a solicitar que Jabyer Fernández comparezca en las Juntas Generales de Bizkaia. Conocida la versión de la Diputación, quieren escuchar también lo que tiene que decir el empresario. La formación morada ha preguntado por las “responsabilidades políticas que se van a exigir” tras conocerse el fallo del Supremo.

PROPOSICIÓN RECHAZADA

Antes de producirse la comparecencia de Bengoetxea, quien ha estado acompañada también por el diputado de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, la comisión ha rechazado una proposición no de norma de Podemos Bizkaia para que se instase al Gobierno central a “habilitar mecanismos para exigir responsabilidades políticas a los representantes de la ciudadanía”, entre otras cosas. En el texto, se instaba “a invocar a la soberanía popular para que mediante el recurso de responsabilidad política” se impulsase la dimisión de Mariano Rajoy y su Gobierno por los “innumerables” casos de corrupción. La formación morada ha admitido una



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

enmienda de EH Bildu para que dicha petición se acotara exclusivamente a pedir dichos mecanismos de control a las instituciones vascas.

La iniciativa parlamentaria consensuada entre Podemos y EH Bildu ha sido rechazada en la Cámara vizcaína por los votos contrarios de los representantes de PNV, PP y PSE-EE que creen que la iniciativa, debatida también en ayuntamientos y otros parlamentos, llevaba por objetivo "visualizar" y "calentar" la moción de censura de Podemos debatida en junio pasado en el Congreso de los Diputados. Según estas tres formaciones, el debate sobre "la calidad de la democracia y la corrupción" debe trasladarse a otros foros.